

- Por último y a la luz del grado de desarrollo alcanzado por la acción exterior vasca en el periodo acotado por la obra (1980-2003), concluye con un pronóstico de futuro, que auguraría un incremento de esa actividad exterior en todas las vertientes en las que se materializa.

Por lo demás, desde el punto de vista formal, la presentación de esta obra merece destacar su cuidada edición y el buen hacer de sus autores en lo tocante a la inclusión de un índice, desarrollado al límite, que permite una rápida y ágil consulta a todo lector interesado en encontrar respuesta a sus intereses inmediatos en alguna de las materias desarrolladas por la obra.

Por otra parte, cabría subrayar, como aportación más destacable del texto aquí reseñado, su ya anunciado valor divulgativo, que en ningún caso supone un abandono de otro tipo de aspectos sustantivos como pudieran ser la rigurosidad en el contenido y la profundidad en el análisis. Todo ello sin descuidar una completa bibliografía en la que se hace patente la solidez de la trayectoria científica de ambos autores en lo relativo a la materia desarrollada en la obra. Lamentando, si acaso, lo limitado de su ámbito material y la no inclusión de aquellos ámbitos que pudieran permitirnos concluir una más adecuada elección del título (La acción exterior del País Vasco) y complementar una obra referente en la materia. Sin que esto último pueda desmerecer, en modo alguno, la necesaria recomendación de su lectura.

*Oscar Abalde Cantero*



**ERDOZIA MAULEON, Jose Luis**  
**Sakanako Hiztegi Dialektologikoa**

Nafarroako Gobernua, Euskaltzaindia, 2004. - 413 or. ;  
22,5 cm. - ISBN: 84-95438-17-8

Jose Luis Erdoziak Sakanako euskararen sakontzeko beste ekarpen bat plazaratzen du. Tesiaren ikerketaren ondoren, herri hauetako hainbat dotrina aztertu ondoren eta hemengo toponimian arakatu ondoren, hiztegi dialektologiko eder bat ekartzen digu oraingoa.

Jakina denez, azken honetan dialektologia lanak ugaltzen hasi diren heinean, lexikoaren bilketak ere egin dute hein berean, eta honela, azken urteotan hiztegi dialektologikoak eskuartean gozatu ahal izan ditugu. Hauetariko batzuek desagertuak edo heriotzear dauden hizkeren lexikoa biltzen dute; esaterako, Artolak egindako Iltzarbeibarko hiztegia, edo Artzibarkoa, bi hauek desagerturiko hizkerak, jakina den bezala.

Ez hain aspaldian, Erronkarikoa izan genuen esku tartean, Bernardo Estornes Lasak egina. Nafarroako mendebaldean, Araba eta Gipuzkoarekin muga egiten duen Sakana haraneko hizkeraren lexikoa biltzea du helburutzat lan honek.

Ikertzaile etxarriarra orain arte zeuden lanetan oinarritu da, alde batetik, eta bestetik, berarrek egindako ikerketetan, honako lanak begi bistan izanik: Bitoriano Huizi etxarriarena, Francisco Ondarra bakaikuarrarena, Kandido Izagirrerena, Rafael Karasatorrena, Koldo Zuazorena, Gregoria Solisena eta Ulaiar eta egilearen berarenak. Nolanahi dela ere, gehienak oso lan lokalak dira, Zuazorena eta Karasatorreraren azkena izan ezik. Hala ere, lan dialektologiko hauek alfabetikoki ordenatutako hitzen zerrenda baino ez dute jasotzen, gaztelaniako ordaina atxikitzen zaiolarik bakoitzari.

Bestalde, badira bestelako lexiko bildumak, esaterako *Erizkizundi Irukoitza* galde-tegjaren emaitzak ditugu (1983), baina lan orokorra da eta horrela izanik, ez du, inondik inora, era egokian islatzen herri hauetako lexikoa.

Egileak dioenez, Sakanako hainbat herritan euskara bizi-bizirik dago, baina, berrogei urtetik beherako euskaldun gehienek euskara batua erabiltzen dute, hizkera bakoitzaren ezaugarri nagusiak eta, batez ere, bertako lexikoa galtzen ari direlarik. Bestalde, Erdoziak Mitxelenaren hitzak gogoratzen ditu, Bakaikuko aberastasun lexikoari erreferentzia egiten dionean, eta horrek, dirudenez, bultzatu du hemengo hizkera bizia biltzera, bereziki hirurogei urtetik gorako herritarrek baliatzen dutena.

Hiztegi honek ia sei mila sarrera jaso ditu. Eta honatx nola dagoen antolaturik: lehenik, sarrera beraren egungo ahozko burutzapena, beltzez, lexema soilik eta era mugatua agertzen delarik. Ondoren, zein herritan erabiltzen den parentesi artean, kategoria gramatikala letra etzanean. Geroago, euskara batuan duen ordaina eta azalpen laburra, baita *Orotariko Euskal Hiztegi*ko erreferentzia ere, parentesi artean.

Bukatzeko, beste hiztegien erreferentzia zehatza biltzen ditu, parentesi artean, sarreraren testuinguramendua eta honen ordaina euskara batuan, eta azkenik, gaztelaniako ordaina.

Hiztegi batean ohikoa denez, hitz batek esanahi bat baino gehiago duenean, sarrera bakarra jarri da, eta zenbaki etzanean bidez esanahiak bereizi dira. Era berean, *ikus.* laburtzapenarekin hiztegi-etako beste sarrera bati erreferentzia egiten zaio, ez da, ordea, sinonimoarena erabiltzen.

Hasieran esan bezala, hiztegi honetan gaur egungo hizketa biziaren lexikoa bilzteza da helburu, alegia, hiztun adinduek egiten dutena, hiztun kutsagabetuenena. Xede hori begibistan izanik, ulertzen dugu idatzizko iturrien aipamenik ez ekartzea, nahiz ugariak diren Izagirreraren edo Ondarraren bildumei egindako erreferentziak. Nolanahi dela ere, informatzaileen zerrenda luzea da, horiengandik jaso dituela hitz sorta ederrena iruditzen zaigu, gaurko hizkera bizia islatzen baitu argiki bilduma honek.

Bestalde, erabat beharrezkoa ez den informazioa iruditzen zaigu Orotariko Euskal hiztegiaren erreferentzia ekartzea. Izan ere, hiztegi orokor baten betebeharra da adieraztea Euskal Herriko zein tokitan erabiltzen den, alegia, banaketa geolinguistikoa ekartzea, baina, ez zaigu iruditzen hizkera baten hiztegi dialektologiko batean premiazkoa denik informazio hau. Izan ere, liburu honetako hitz bakoitzean agertzen da hitz horren hedadura, orokorra den edo Lizarragabengoan, Etxarrin edo Sakana erdialdean erabilia den, eta hauxe da, hain zuzen, hiztegi honi eskatuko geniokeena.

Bukatzeko, liburuak aurkibide zabal bat ekartzen du, euskara batuaren aldaera ezkerrialdean eta euskalkiaren ordaina eskuinean jarriz. Aipatutako hau oso baliabide egokia da, kontuan hartzen badugu, gainera, nolabaiteko eremu semantikoetan banatua dagoela. Horrela, ardiarekin erlazonaturiko hitz gehienak hurrenkeran agertzen dira, esaterako, *ardi gazte*, *ardi kaka*, *ardi mora*, *ardia* (*haur hezkuntzan*), *ardien gaixotasuna*, *ardien soinua*, *ardi ongarrria* etab. jarraian egoten dira.

Honainokoa laburbilduz, eskuartean dugun hiztegi interesgarri honek gaurko Sakanako euskara islatzen du. Are interesgarriagoa da, besteak beste, aldi berean euskal tradizioak gorde dituen ohiturak eta kontuak biltzen dituelako, nolabait hiztegi bizi eta gaurkotu bat osatuz, tradizioak eskaintzen duena ahantzi gabe.

*Orreaga Ibarra Murillo*



**ETAYO ZALDUENDO, Jesús**

**Navarra, una soberanía secuestrada: historia y periodismo (1923-1931)**

Tafalla : Txalaparta, 2004. - 510 p. ; 22 cm. - ISBN: 84-8136-359-6

Hizpide dugun liburu hori ez da oso ohikoa. Alde batetik, egunkari desberdinetan, bereziki La Voz de Navarran, kaleratutako artikuluen bilduma delako. Bestetik, artikululu multzo hori egile bakar baten idazlumatik atera badira ere, talaia askotatik azter daitezkelako. Liburuaren izenburuak dakarrenez, historiak eta kazetaritzak bat egiten dute Jesús Etayo Zaldueñoren lanetan baina, politikak eta kulturak ere, oso pisu handikoak ditugu kazetari-historiagile nafarraren idazki horietan. Berak, lanbidez Nafarroako Diputazioan artxibozain gisa jarduteaz gain, Iruñeko komunikabide idatzietan ardura nabarmenak izan zituen. Hori dela eta, “El Pensamiento Navarro” deitutakoaren zuzendari izatera iritsi zena, geroxeago “La Voz de Navarra” egunkari abertzalean kolaboratzaile izan zen urte askotan.

Historia libururik idatzi ez bazuen ere, kazetari iruñarrak kaleratutako ehundaka artikuluei esker, antzeman daitezke zituen ezagutza historiko sendoak, baita horiek zabaltzeko zuen sena ere. Lau hamarkadetan zehar izandako jardunean ederki frogatu zuen, egunerokotasunak agintzen dituen norabide aldakorrek eta “Magistra Vitae” den historia oso elkarkideak izan daitezkeela. Oraingoa eta biharkoa burutzeke ditugun bitartean, aurrekari historikoez gaurkoa nabarmen argitzen ahal digutela. Guzti hori frogatzen dute liburu horretan bildutako ehundik gorako artikuluek. Horiek funtsatzeko Etayo Zaldueñok Nafarroako aro historiko desberdinetako iturrietatik edan zituen, zegokion abagunetako lehia politiko-historiografikoari ekiteko.

Komentatzen dugun liburuak, 1923 eta 1931.ko urteen arteko idazlanak biltzen ditu, Primo de Riveraren Diktaduraren hastapenetik II. Errepublikaren aldarrikapena eta pixka bat berantagoko tartean argitaratutakoak. Aldi horrek liburuari ematen dio estrai-neko bereiztasuna. Izan ere, sarritan nabarmendu duten legez, Primo de Riveraren agintaldi politiko hori, ikerlanei dagokienez, umezurtz izan dugu, Diktadura Frankista, II Errepublika eta 1936.ko Gerrarekiko arreta gune indartsuek eklipsatu dutelako 1923-1930.ko aro diktatoriala. Nafarroako mugetatik atera gabe, Jesús María Fuentes Langasek bere Doktoradutza tesia “La Dictadura de Primo de Rivera en Navarra” plazaratu zuen arte, izenburu berdintsuaren Francisco Mirandaren liburuttoa, eta Elena Osesen “La Voz de Navarra” Un periódico vasquista”. “Sus primeras campañas (1923-1931)” tesiaren ondorioz argitaratutako artikululu bat baino ez zegoen.